

EKINTZÄÄLUVIZ
AYUDA A LUDOPATAS DE BIZKAIA • BIZKAIKO LUDOPATENTZAKO LAGUNTZA

2019 URTEKO MEMORIA

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena. Xedea, Ikuspegia eta Balioak.....	2
2. Gobernu eta organoak taldeak	5
3. Jokoarekiko menpekotasuna.....	7
4. Programa eta zerbitzuak	10
4.1. Laguntza psikologikoa.....	10
4.2. Gizarte lana	10
4.3. Aholkularitza juridikoa	10
4.4. Talde laguntza	10
4.5. Prebentzio programa	17
4.6. Boluntaritza	22
5. Pazienteen profila	23
6. Beste datu estatistikoak.....	28
7. Santurtziko datuak.....	31

1. AURKEZPENA



Irakurle maiteak: 30 urte daramatzagu Ekintza-Aluvizen eta aurten berriro taldearen ahaleginarekin eta lanarekin agurtzen dugu beste urte bat. Urte bat gehiago harreraren kopurua gainditu ditugu, beste urteekin konparatuz.

Hasi berri dugun 2020 urte honetarako itxaropen handiak baditugu ere, gure kezkarik handiena Ekintza Aluviz eta Alubiz Bilbao-n ematen hari den laguntza eskaeraren hazkundera da, honi erantzun egokia emateko ditugun errekursoak kontutan hartuta. Euskadiko Joko Behatokiko lehen informe ofizialetik ateratako datuak, EAEn joko patologikoa pairatzen duten pertsona kopuruaren neurrigabeko hazkunderari buruzkoak, benetan larritzeko modukoak dira. Esan dezakegu, Ekintza Aluviz eta Alubiz Bilbao elkarteetan 2019 urtean gure ekintza guztiak aurrera eramatea lortu dugula gure esku ditugun errekursoak berdin mantendu diren arren, gainera, genituen helburuak bete ditugu: boluntarioentzako formakuntza (boluntario taldeetan senideen parte hartzearekin arrotzen gara) eta tratamendu protokoloaren berritzea jokoaren kontra borrokan jarraitzeko. “Joko Gabeko

Eguna” ospatu ahal izan dugu Alubiz Bilbao elkarteetan (Bilboko Udalaren laguntzarekin), joko enpresek publizitatearen bidez bidaltzen dituzten mezuak, gazteentzako batez ere oso kaltegarriak direnak, salatu nahi izan genuen.

Ekintza Aluviz eta Alubiz Bilbao elkarteetatik azpimarratu nahi dugu ausazko jokoek eta kirol-apustuek dakartzaten kalteak minimizatzeko 3 ardatz nagusietan lan egiteko garrantzia. Hiru ardatzak hurrengoak direlarik: gazteei zuzendutako prebentzio goiztiarreko programa eraginkorrek sortzea, ausazko jokoetarako arauak, gutxienez arrisku handiena duten jokoetarako, eta azkenik, zerbitzu hau eskaintzen duten lokaletan sarbide eza bermatzea, adin txikiko gazte zein auto debekatzea aukeratu dunei.

Nabarmendu nahi dugun beste aspektua, **ALUBIZ BILBAO** (Bolueta auzoan, Bilbon) elkartearen lehenengo urtebetea da. Aurrera eramandako ekintzekin (elkarlaguntza taldeak jokoaz kaltetutako pertsona eta senideekin, gizarte langintza eta psikologia arloetatik eskaintutako laguntza) pozik bagaude ere, 2020. urtea hasi dugu helburu zehatz batekin: aurten emango dugun arreta hobetu eta optimizatzea, ahal den neurrian.

Azkenik, elkarteetan haritzen diren pertsona guztiei haien baldintzagabeko lana eskertu nahi diet.

Luis Bermejori eskerrak ematea Ekintzan izandako ibilbideagatik, zauden lekuan zaudela, egunero faltan botatzen zaitugu. *“Siempre he hecho lo que me ha dado la gana, pero nunca lo que he querido”*.

Izpta. Jon Antón.

XEDEA

- EKINTZA ALUVIZ 1989an sortutako irabazi-asmorik gabeko elkarte da.
- Aurten 2019an, 30 urte darama joko patologikoa eragina duen pertsonen laguntzaile gisa senideak barne.
- 1993. urtetik FEJAR (Federación Española de Judadores de Azar Rehabilitados) barne gaude, eta bere bazkideekin batera egunero jokoarekiko mendetasuna lantzen dugu.

IKUSPEGIA

- Erantzun egokiak eskaintzen dizkiegu, Bizkaiko biztanle ludopata guztiei.
- Gaur egun dauden erraztasunak kontutan hartuz, joko patologikoagatik eragindako pertsonen kopurua oso azkar handitzen doa. Igoerara eragina daukaten faktoreak: teknologia berriak, gizartearen normalizazioa eta publizitatea direla, esan dezakegu.

BALIOAK

- Taldeko lana
- Transparentzia
- Konpromisoa
- Konfiantza
- Hurbiltasuna
- Entzutea eta errespetoa

2. GOBERNU ORGANOAK ETA TALDEAK

ZUZENDARITZA BBATZORDEA

JON ANTON. Boluntarioa

ZUZENDARIA

LUIS BERMEJO. Boluntarioa

ZUZENDARI-ORDEA

JAVI CUEVAS. Boluntarioa

IDAZKARIA

PEDRO ZUAZNABAR. Boluntarioa

DIRUZAINA

BATZORDEKIDEAK

JESÚS RODRÍGUEZ. Boluntarioa

JOSEBA MAESO. Boluntarioa

JUANJO GÓMEZ. Boluntarioa

JOSEBA ROYO. Boluntarioa

OLGA GALLEGO. Boluntarioa

TALDE TEKNIKOÄ

ILLARGI ZARATE. Psikologoa


LUCIA PANIAGUA GARCÍA. Psikologoa

GARAZI LUZURIAGA RAMOS. Psikologoa

ANA FERNÁNDEZ CUBILLAS. Gizarte langilea

MARISA GRACIA. Erreferentzia-abokatua

ORGANIGRAMA



3. LUDOPATIA

Jolasak pertsona baten garapena errazten du, batez ere haurtzaroan eta helduaroan ere. Biziprosesuan zehar etekin eta asebetetze asko ekar ditzake, ikasteko ideala da eta ikasketa dibertigarriagoa egiten du.

Hala ere, kontrolik gabeko apustuarekiko jokoa (Gambling) kaltegarria gerta daiteke batez ere jokoa erabiltzen badugu gero eta diru gehiago eta gehiago lortzeko helburu bakarrarekin eta ez entretenimendu lortzeko finean.

Guzti hau kontutan hartuz jokalaria mota ezberdinak bereiz ditzakegu:

Jokalaria soziala

- Atsegina eta dibertigarria
- Ez dauka inolako helbururik
- Garaikoa eta borondatezkoa
- Ikasketa, sormena, sozializazioa eta abar du

Jokalaria arazotsua

- Oraindik kontrol-une batzuk daude
- Diru-galera handiko gertakari zehatzak
- Bere jokaeran ez dauka arazo handirik
- Ez du eraginik ingurunean eta bere gizarte-harremanetan

Jokalaria patologikoa

- Kanpoko helburuak ditu: lehenengo dirua irabaztea eta geroxeago galdutako dirua berreskuratzea.
- Ez du libreki aukeratzen, jokaera gehigarria
- Bizitzako gainerako arloei eragiten die
- Pertsonaren bizitzan oinarritzko funtzioak jokoaren bitartez lortzea da

1. Irudia: Jokalaria motak. Labrador eta Becoña(1994) VI. Euskal-Herriko akzio-planean aipatuta 2011-2015(2011).

Bulkaden kontrolik eza areagotzen denean, adikzio baten aurrean aurkitzen gara. Luzaroan zehar eta gaur egun ere, ludopatia bizio bat bezala ikusita egon da, gure gizartean arazo honi buruz daukagun informazio eskasari esker. Familian eta batez ere jokalaria bera adikzio bat dela asimilatzea ezinbestekoa da. Gaixotasun psikologikoa da, beraz eraginpeko pertsonak jarrera aktiboa hartu behar du bere tratamenduarekiko. DSM V (2014) Osasun Mentalen Diagnostikoa eskuliburua, liburu hau erabiltzen da buru-osasunerako erlazionatutako pertsona guztiek informazioa truka dezatela, liburu honek ludopatia mendekotasunezko jokabide bezala hartzen du, hau da, sustantziarik gabeko mendekotasuna. Sustantzien kontsumoarekin gertatzen den moduan, naiz eta ondorio txarrak izan (antsietatea, depresioa, alkoholismoa...) jokabidea mantentzen da. Apirilak 7ko 1/2016 legean ludopatia mendekotasun gisa hartzen da.

Jokoaren munduan sartzen den pertsonak hainbat fasegatik pasatzen du:

- Irabaziaren fasea (batzuetan diru asko irabazten du), jokalaria maiztasun gehiagorekin egiten ditu bere apustuak.
- Galeraren fasea momentu honetan apustu egiten du galdutako kopuru handia berreskuratzeko asmoz “galeren ehiza”. Momentu honetan zorrak dituzu eta kentzeko finean bai senideei bai lagunei dirua eskatzen diezu esaten berriz ez duzula egingo. Etena suntsitzailea da, jokalaria bere ardurak onartzen ez duelako.
- Etsipenaren fasea jarrera etengabe errepikatzen da. Berriz ere zorrak sortzen dira eta beste ondorio batzuk agertzen dira. Familia asmatzen du arazoa edo pertsona berak daukan arazoa jasangarria delako aitortzen du dena. Momentu honetara heltzean izaten da laguntza eskatzen denean.

Guzti honen ondorio batzuk:

Eremu emozionala:

*Gezurrak, antsietatea, lo-
ezina, tristura,
arduragabetasun
pertsonala, autoestimua
eskasa, eta abar.*

Eremu lana:

*Errendimendu baxua,
zigorrek, motibaziorik
eza, lana ustea eta abar..*

Eremu akademikoa:

*Errendimendu baxua,
motibaziorik eza, faltak,
emaitza txarrak,
ikasketen ustea eta abar.*

Eremu familiarra:

*eztabaidak, konfiantzarik
eza, komunikaziorik eza,
erlazio familiarren
hondapena eta abar.*

Eremu soziala:

*zure
bikotearen urruntzea ,
familiarren urruntzea,
lagunen urruntzea,
lagunak galtzea,
dibertitzeko gogorik ez
eta abar.*


Eremu ekonomikoa:

*zorrek pertsona
ezagunengan, mailegu
txikiak, lapurretak etxean,
bankuetan maileguak eta
abar.*

4. PROGRAMAK ETA ZERBITSUAK

Ekintza Aluviz-ean erabiltzen dugun eredua kognitiboa – jokabidezko da. Tratamenduan erabiltzen ditugun estrategiak berebiziko garrantzia dute. Emandako jarraibideak aplikatuz portaera problematikoak identifikatzen eta zuzentzen ikasten dute pazienteek, ausazko jokoen abusua eteteko eta aldi berean aurkezten diren beste arazo batzuk lantzeko. Horretarako arlo anitzeko talde daukagu. Talde honek beste entitateekin eta errekurtsioekin (osasun eta sozial) koordinatuta dago.

- **4.1. Laguntza psikologikoa:** Tratamendua osatzea du helburu, pertsona osoa kontuan hartuta: bere nortasuna eta erabiltzaile bakoitzaren ezaugarriak.
- **4.2. Giza lana: Gizarte-diagnostikoa, aholkularitza gizarte eta hezkuntza arazoak konpontzeko laguntza, arlo pertsonalean eta familiarrean.**
- **4.3. Aholkularitza juridikoa:** Pazienteei eta senideei zuzendua, zorrei eta beste edozein lege-arazori buruz aholkua emateko.
- **4.4. Taldeko laguntza:** Ekintza-Aluvizen joko patologikoa birgaitzeak hainbat fase dakar, horietako bakoitzak funtzio eta helburu zehatzak ditu



HARRERA

Elkarteko boluntarioak egiten dute. Eragindako pertsonaren datuak eta pertsona laguntzailearen datuak jasotzen dira. Patologiaren larritasuna azaltzen da eta parte hartzea beharrezkoa dela. Bere bizipenak azaltzen ditu ere. Oso garrantzitsua laguntzailearen buru, honek errehabilitazioan papera garrantzitsua izango du. Une honetan, jarraibide orokor batzuk gomendatzen dira, hala nola kontrol ekonomikoa, ohituren aldaketa eta zero jokia.

1.FASEA: ALDAKETARI MOTIBATU

Lehen fase honen helburua, joko patologikoak eragindako pertsonari larritasunaren egoeraz kontzientziatzea da, horrela aldaketak egiteko motibazioa bultzatuz. Gaixotasunari buruz hitz egiten dugunean, gaixoa berak paper garrantzitsua jokatzen duela bere birgaitzean esan behar diegu, bai joko patologikoa bai beste motako adizioak sendatzen duten farmakorik ez daudelako. Fase honetan ere harreran emandako jarraibideak indartzen ditugu. Taldearen koordinatzaileak, pertsona boluntarioa eta gizarte-langilea izango dira.

Terapiak 1h30-ko iraupena izango du aste bakoitzeko.

Kontrol ekonomikoa

- Tiketen aurkezpena eguneroko gastuak justifikatzeko.
- Banku-kontuak mankomunatzea
- Eguna igartzeko behar duzun diru egokia izatea.
- Eragindako pertsonak ez du kreditu-txartelarik ez banku-libretarik izango .

Ohitura aldaketa

- Jokoko leku espezifiketan sartzea saihestea (kasino, apustu-lokalak, joko-aretoak eta abar).
- Normalen jolasten zenuen tokiak saihestea.
- Bete denbora librea.

Zero jokia

- Ez jolastu zorizko jokoetara ez apustuetara (zure joko gogokoena izan ez arren).
- Apusturik gabeko jokoak ez dute arriskua ekartzen eguneroko bizitzan eraginik ez duen bitartean.
- Auto-prohibizioa bingo eta kasinoetan.

2.FASEA: JOKABDEAREN ESKU-HARTZEA

Taldeko lana oso aberasgarria da, beste ikuspuntuak ikusteko eta lan sinergia dinamikoa eta etengabeko hazkuntzan sortzeko laguntzen duelako.

Fase honetako koordinatzaileek ludopatia birgaituak dira. Beren errehabilitazioa lortu ondoren euren esperientzia eskaintzen dute taldeari. Taldekideen helburuak lortzeko eta motibatzeko eredu gisa balio dute boluntarioak. Jokaeraren kontrola jarraibideen bidez lortu nahi da.

Etaparen honetan lortu nahi diren helburuak hauek dira:

- Gaixotasunaren berri jakitea
- Giza-harremanak sustatzea
- Kohesioa eta taldearen batasuna
- Laguntza emozionala
- Konfiantza eta zure burua adierazteko leku segurua
- Taldeko beste lankideekin eta koterapeuteekin identifikatzea
- Joko patologikoari buruz informatzea

Fase hau gutxi gora bera 25 saiotan osatua dago, horietako bi edo lau senideekin batera egiten dira errehabilitazio prozesua nola doan ebaluatzeko.

3. FASEA: FAKTORE PSIKOLOGIKOETAN ESKU-HARTZEA

Fase honetan koordinaketa psikologoa eta monitore batek eramaten dute. Azken honek prozesuaren gida izaten jarraitzen du. Garrantzitsuena pertsona berreskuratzea eta errekursoak ematea, bere bizitzan Aurrera egin dezan. Gai kognitiboak eta emozionalak jorratuko dira. Lehenengoak, pertsonak dekoguzan idei okerren inguruan datza, adibidez, kontrola, disponibilitatea, ametsezko korrelazioa (pentsamendu magikoa, adibidez, bingoko zenbakiak markatzeko “patuaren arkatza”, isuriaren berrespena (adibidez, zortea eta zoriaren arteko nahastea).

Gai emozionalak, aldiz, autoestiman, komunikazioan, arazoaren ebazpenaren entrenamenduan, emozioen identifikazioan eta bere erregularizazioan datza, besteak beste. Fase honek 25 saioko iraupena du. Horietatik 2-4 saio haien familiarrekin egiten da, errehabilitazioaren prozesuan balorazioa egin dezaten.

EMAKUMEENTZAKO BERARIAZKO TALDEA

Elkartean lan egiten dugun heinean, joko patologikoa pairatzen dituzten emakumeek ez dutela tratamendurik eskatzen konturatu egin gara, hala ere, estatistiken arabera errealitatean gertatzen den isla ez dela jakin dugu. Arazo horrekin erlazionatuta dagoen elementu oinarrizkoa emakumeek jasaten duten estigma bikoitza dela susmatzen da. Gainera, sintoma larriagoak adierazten dituzte tratamendua eskatzen dutenean, mendekotasuna hainbat urtez sufritu baitute. Horregatik guztiagatik, tratamendu intentsiboa behar izango dute.

Emakumezko profilak eta gizonezkoak oinarrizko ezberdintasunak dituzte, bai profilaren ezaugarrietan bai sozio-familiar arloan ere. Elkartek, behar hori erantzuna emateko, emakumerentzako gune espezifiko bat sortzea erabaki du, errehabilitazio guztiaren zehar erabil daitekeen zerbitzu bat. Talde horren helburu nagusia emakumeen beharrei (estigma, rolak, genero estereotipoak, tabuak, mitoak ...) erantzun egoki eta pertsonala ematea da. Emakumezko taldea elkarteko psikologo bat darama eta terapia orokorrari gehitzen da.



JARRAIPENA

Jarraipena hainbat talde bileretan lantzen da. Amaitu eta hilabete batera, 3 hilabetera, 6 hilabetera eta urtebetera. Helburua, gizarteratzean laguntzea da.

LUDOPATIAZ AFEKTATUA DAUDEN FAMILIARRENTZAKO TAILERRA

Harreman
terapeutikoa eta
motibazioa

Emozio eta
sentimenduak

Adikzioa errazten
duten jokabideak

Birgizarteratzea

Berrerorketak
prebenitzea

HELBURUAK:

- Ulertzeko tresnak ematea.
- Joku patologikoa duten pertsonetikiko tratua hobetzea.
- Babesa izatea, familiarrek ere oso ahulak dira.
- Tratamendua irauten duen bitartean jokabideak sendotzea eta finkatzea: nahasketak eta larritasunak.

Urtean 3 aldiz egin dugu familiarrentzako tailerra. 3 hilabeteko iraupena duen, 10 saiotan bananduta dago. Astero saio bat egiten da. Normalean asteazkenero izaten da, 18h-20h, eta 20-30 pertsonaz osatuta dago. Saio hauek giza langileak eta ludopatía arazoa gainditua duen gaixo baten familiarrek bideratzen dute..

4.5. prebentzio programak

Hauen helburua jokoarekiko jarrera, pentsamendua eta portaera aldatzean datza.

- **Lehen mailako prebentzioa:** Gizarteari zuzenduta. Helbururik garrantzitsuena joku patologikoen kontzeptua informatzea, dakartzaten arazoak eta ludopatiaren ezaugarriak analizatzea da. Oso garrantzitsua da jokalaria soziala eta patologikoaren artean ezberdintzea.
- **bigarren mailako prebentzioa:** Arriskua pairatu dezaketen taldeei zuzenduta. Gazteak, nagusiak, beste adikzioren bat duten pertsonak, langabetuak, etxeko andreak. Joku patologikoa duten arrisku jarrerren detekzioa, hasiberriak diren arazoak moldatzeko..
- **Hirugarren mailako prebentzioa:** Errehabilitazioan dauden gaixoen eta familien tratamendua egiteko ekintzak martxan jartzea da. Helburuetako batzuk, joku patologikoaren problematikaren aurrean zerbitzu espezifikoak ezartzea da, tratamenduaren efikaziaren ebaluazioa, abstinentziaren trataera (birgaixotzeen prebentzioa), besteak beste.

LEHEN MAILAKO PREBENTZIOA

Jokoaren arazoa ikustarazteko helburuarekin Instituzio eta komunikabide ezberdinetan parte hartu dugu. Hauetako batzuk ondorengoak izan dira:

- Miravalleseko Udalean emandako hitzaldia, Galder Govillar eta Javier Cuevas elkarteko boluntarioen eskutik.
- 7K aldizkarian Javier Cuevas boluntarioari elkarrizketa. .
- El Correo egunkarian Unai Garma Ekintza-Aluvizeko boluntarioari egindako elkarrizketa.
- LA SER, EUSKADI IRRATIA, ONDA CERO, beste batzuen artean, bezalako irrati-programetan parte hartzea. Jon Anton, Ana Fernández, Galder Govillar, Unai Garma (Ekintza-Aluviz-eko boluntario eta gizarte langilea).
- TVE, Antena 3 eta T5-ean agerpena “*Ausazko joko eta kirol-apusturik gabeko eguna*” zela eta.
- ETB2ko *Qué me estás contando* programan agerpena. Jon Antón eta Unai Garma.
- Otxarkoaga eta Indautxuko auzo-elkarteetan hitzaldiak. Juanjo Gomez Solis eta Jon Antón.
- OCU programan parte hartzea. “*Foro de asociaciones de consumo*”. Jon Antón



BIGARREN MAILAKO PREBENTZIOA

- Santurtzin BAOBAD Etorkinei laguntza ematen dien elkartean hitzaldia: “*Las consecuencias del juego patológico*”. Mikel Estefanía eta Javier Cuevas, Ekintza Aluviz-eko boluntarioak.
- Ortuellako Mendialde Formakuntza Zentroan emandako hitzaldi partehartzailea, 16 eta 18 urte bitarteko gazteekin. Mikel Estefanía eta Javier Cuevas, Ekintza Aluviz-eko boluntarioak.
- Athletic Klubeko Herri Norte taldean emandako hitzaldi partehartzailea. Jon Antón, Juan José Gómez, Mikel Estefanía eta Javier Cuevas, Ekintza Aluviz-eko boluntarioak.
- Mutrikuko Institutuko gazteei emandako hitzaldia. Jon Antón.
- *Ausazko Jokorik Gabeko Egunaren* ospakizuna 2019eko urriaren 29an.
- Gazteei zuzendutako jokoaren arazoaren inguruko hitzaldiak. Peñascal Fundazioa, Deustoko Salesianos Ikastetxea, San Luis zentrua, Deustoko Ikastetxe Nagusia, Iralako Gaztetxea, beste batzuen artean. Jon Antón.



Ausazko Jokorik Gabeko Egunaren ospakizunean, Alubiz Bilbao elkartean. Aitor Uriarte, Jon Antón, Alfonso eta Ana Estévez.

HIRUGARREN MAILAKO PREBENTZIOA

- Ludopatian esku-hartzeko programa terapeutikoa urtero berrikusi eta moldatu egiten da eta elkarterako espreski egina dago.
- Talde eta banakako terapia da ludopatiaren errehabilitazioa lortzeko esku-hartzerik eraginkorrena.
- Osasun arloko profesionalentzako, ludopatian inguruko formazio ikastaroak.
- Berrerortze prebentzio programa, psikologoak, tratamenduko 3. Fasean ematen dute. Arrisku egoera identifikatzen eta alternatiba osasungarriak bilatzen dituzten erabiltzaileei zuzenduta dago. 5 saio, 10 ordu inguru.
- FEJAR-ek antolatutako XX. Kongresuan partehartzea “Gure erronka: prebentzioa eta kontzientziatzea”, 2019ko irailaren 27,28 eta 29an, Koruñan.



FEJAR-eko XX. Kongresuko kartela

BESTE AKTIBITATEAK

- Bazkaria, langile talde eta boluntarioekin.
- Boluntarioentzako formazioa, azken 2 urteetan eman da, 20 orduko iraupena. Illargi Zarate Orio. Elkarteko psikologoa.
- 2019ko apirilaren 7an IMPULSA2 PORTUk egindako lehiaketan parte hartzea. Ekintza-Aluviz-ek 1.saria lortu zuen.
- Talde teknikoaren kanpo formazioa. Lan profesionala era osasunarran betetzeko tresnak. 1. eta 2. Maila. 80 ordu. Hizlaria: Enrique Saracho (psikiatra, psikoterapeuta, psikodramatista, eta Edirn osasun kooperatibaren zuzendari teknikoa). Bilboko udaletxeko osasun eta kontsumo arloak egina. Illargi Zarate, Lucía Paniagua eta Javier Cuevas, elkarteko psikologoak eta boluntarioa.



2019ko apirilaren 7an IMPULSA2 PORTU lehiaketaren sariaren banaketa.




Abenduaren 14an ospatutako elkarteko bazkaria boluntarioritza, lankideekin eta beste gonbidatuekin.

4. 6. Boluntariotza

Ekintza Aluvizeko gauzarik edo altxorrik garrantzitsuena bere boluntariotza da. Gaixotasuna pairatu duten gizon-emakume edota hauen familiarrez osatuta dago.

Modu eskuzabal batean, haien esperientzia azaltzen dute. Haien tratamendua amaituta eta 2 urteko abstinentzia izanda, aukera ematen zaie boluntariotzan sartzeko. Arau batzuen onarpena eta barneko formazioa ezinbestekoa da. Gaixoen familiarrek ere izaten dira boluntarioak, haien taillerak eta familiarren gaixoen terapia amaitzen dutenean, bakarrik.

Boluntarioa izateko, onartuak izaten dira; adin nagusiak, edota bere eskubidea emateko baldintza legalik ez dauzkaten, ezta inolako gaitzik ez dituzten edota judizialki indargabetuak izan ez diren adin azpiko emantzipatuak.



5. PAZIENTEEN PROFILAK

2019.an Elkartearen erantzuna eman diegun jokalaritza patologikoen profilak:

GIZONEZKOA

- 31-70 urte.
- Jokalaritza bakartia, arazoetatik alde egiteko.
- Urte askotako ibilbidea.

EMAKUMEZKOA


- 35-50 urte.
- Berandu hasia.
- Askotan depresioa edo antsietatea lagunduta.

GAZTEAK

- 18-30 urte.
- Urte gutxi jokoan.
- Adrenalina bilatzen dute.
- Dirua erraz irabazteko eta harremanak izateko.


Arazo motaren arabera

Ez dugu ahaztu behar sustantzi gabeko beste adikzio mota bati ere laguntzen dugula, erosketa konpultsiboak. Halandagutziz ere, joku patologikoa da gehien jorratzen duguna, grafikoan ikus daitekenez. Mota ezberdinetako jokoak dagoz. Jarraian grafikoan guk lantzen ditugun ohizkoenak eta bere portzentaiak.




Joko motaren arabera

Txanpon-makinak dira joko arazotsu ugarietak, ruletak jarraitzen diolarik.



2019an arreta eman diegun pertsonen profila



2019an EKINTZA-ALUVIZen ARRETA EMAN DIEGUN PERTSONA KOPURUA, BIZILEKUAREN ARABERA.


AMOREBIETA 8	GORLIZ 1
ARGOÑOS (CANTABRIA) 2)	GUEÑES 2
ARRIGORRIAGA 3	GURIEZO (CANTABRIA) 1
ARTZENIAGA 1	LAREDO (CANTABRIA) 2
ASTRABUDUA 1	LEIOA 5
BALMASEDA 1	LEKEITIO 1
BARAKALDO 24	LEMOA 1
BARRIKA 1	LLODIO 2
BASAURI 13	MATIENA 1
BERANGO 1	MENA (BURGOS) 1
BERMEO 4	MUNGUIA 4
BILBAO 88	MUTRIKU (GIPUZKOA) 1
CASTRO URDIALES (CANTABRIA) 5	MUSKIZ 6
DURANGO 5	ONDARROA 4
EIBAR 2	OROZKO 1
ELORRIO 2	ORTUELLA 1
ERANDIO 6	PORTUGALETE 15
ERMUA 1	SANTURTZI 23
ETXEBARRI 3	SESTAO 8
GALDAKAO 10	SODUPE 1
GALLARTA 2	SONDIKA 3
GERNIKA 2	SOPUERTA 1
GETXO 5	TRAPAGARAN 5
USANSOLO 2	ZALLA 1

6. BESTE DATU BATZUK


Ekintza mota	Pertsona kopurua
Gizarte langilea, psikologoak eta abokatuak joko patologikoaren aurrean emandako laguntza	274
Gizartea langilea, psikologoa eta abokatuak sustantzi gabeko beste adikzioen inguruan emandako laguntza	15
Gaixoen familiarrei emandako atentzioa	548
2018an terapia hasitako gaixoen senideei emandako laguntza	250
2018an terapia hasitako gaixoak	125
ARRETA EMANDAKO PERTSONA KOPURUA	1212

Eskaeraren eboluzioa

Ekintza Aluvizen lagundutako senide kopuruaren hazkundera




Ekintza Aluvizen arreta emndako pertsona kopuruaren hazkundera



Deribazio iturriak

- 2019-an elkartera heldu diren pertsonen deribazio iturrien estimazioa:



2019 URTEKO SANTURTZIKO DATUAK

2019an tratamendua hasitako pertsonak	62
Arreta emandako pertsona kopurua	23 (17 gizonezko y 6 emakumezko)
Arreta emandako senide kopurua	39
Tratamendua amaitutako paziente eta senideak	33
Guztira pertsona kopurua	134

Géneroaren arabera

